

ESKOLA KONTSEILUAK, 2024-25 IKASTURTEAN: HAUTATU, PARTZIALKI BERRITU, POSTU HUTSAK BETE ETA ERATZEA

Eskola kontseilua hautatzeko, partzialki berritzeko edo postu hutsak betetzeko eta kontseilu berria eratzekeo prozedura argitu nahian, horren hiru faseak azalduko dizkizugu, garatu beharreko ekintza nagusiak, arduradunak eta gauzatzeko datak zehazteko.

LEHEN FASEA: HAUTESLE ERROLDAK		
EKINTZAK	ARDURADUNAK	NOIZ
Hauteskunde erroldak prestatzea	Zuzendaria	Hauteskunde batzordea eratu aurretik
Behin-behineko hautesle-erroldak argitaratzea	Zuzendaria	Hauteskunde batzordea eratu aurretik
Behin-behineko hautesle-erroldak errekamazioak egitea	Zuzendaria	Hauteskunde batzordea eratu aurretik (behin behineko hautesle erroldak argitaratu eta hurrengo 3 egun baliodunean)
Behinbetiko hautesle-erroldak argitaratzea	Zuzendaria	Hauteskunde batzordea eratu aurretik (errekamazio epea bukatu eta hurrengo egun baliodunean)

BIGARREN FASEA: HAUTESKUNDE BATZORDEA, HAUTAGAITZAK ONARTZEA ETA ZERRENDAK ARGITARATZEA		
EKINTZAK	ARDURADUNAK	NOIZ
Hauteskunde batzordea eratzea	Zuzendaria	2024ko urriaren 18a baino lehen
Hautagaitzak onartzea	Hauteskunde batzordea	2024ko urriaren 21etik 2024ko urriaren 31ko 14:00ak arte
Hautagaien behin behineko zerrenda argitaratzea	Hauteskunde batzordea	2024ko azaroaren 4an
Hautagaien behin behineko zerrendari errekamazioak egitea		2024ko azaroaren 5ean
Behin behineko zerrendari egindako errekamazioak ebaztea	Hauteskunde batzordea	2024ko azaroaren 6 eta 7an
Hautagaien behin betiko zerrenda argitaratzea	Hauteskunde batzordea	2024ko azaroaren 8an
KONTUAN HARTU BEHARREKOAK: - Gerta daiteke sektore batean aurkeztutako hautagaien kopurua txikiagoa izatea berritu edo bete beharreko ordezkariena baino, edo horren berdina izatea. Horrelakoetan, aurkeztu diren hautagaiak izendatuko ditu hauteskunde batzordeak, sektore horretako hauteskunde mahaira deitu beharrik gabe eta, ondorioz, prozesuaren hirugarren fasea zabaldu beharrik gabe. - Hauteskunde batzordea eratu ondoren, behar diren hauteskunde mahaiak eratuko dira.		

HIRUGARREN FASEA: HAUTESKUNDE PROZESUA GAUZATZEA, ERANSKINAK BIDALTZEA IKASKETAK ANTOLATZEKO ATALERA ETA ESKOLA KONTSEILUA ERATZEA		
EKINTZAK	ARDURADUNAK	NOIZ
Hauteskunde prozesua gauzatzea		2024eko azaroaren 11tik 2024eko azaroaren 22ra arte
Hautagaiak aldarrikatzea	Hauteskunde batzordea	2024ko azaroaren 22a, beranduenez
Eranskina Ikasketak Antolatzeko Atalera bidaltzea (ordenacion.academica@navarra.es)	Zuzendaria	Bozketak bukatu eta hurrengo 5 egun baliodunean
Eskola kontseilua eratzea		Hautetsiak aldarrikatu eta hurrengo 10 egunean